Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

226 zenbakia
2021 **uztaila**

Prest!

BERBETAN: **LEIRE MURGUIALDAY** PSIKOLOGOA

ERREPORTAJEA: **LURGAIA FUNDAZIOA** **BARKUA:** **ARTEBIK ATEAK ITXIKO DITU BETIKO**

TOKIKOM

22-223-224-225-226-

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu kastola

Txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

DEUSTO BIZIRIK Comercios, servicios y hostelería de Deusto

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI GAZTA KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

226 zenbakia
2021eko uztaila

aurkibidea

Maider Zalbidea Pardo - Iker Basabe Mendizabal **Iritzia** 4

Ladur Labat Larbi **Gureak kanpoan** 5

erreportajea
Lurgaia: bizkaiko basoak berreskuratzeko ahaleginean

Bioaniztasunaren kontserbazioa eta natura-ondarearen kudeaketa sustatzeko sortu zuten Lurgaia fundazioa duela 19 urte. Bizkaian espezie exotiko inbaditzaileak kendu eta bertokoak landatzen dituzte, betiere fokua basoen berreskurapenean jarrita. Luzarra kalean dute egoitza eta bertara hurbildu gara astearte goiz batean, Jon, Cristina eta Sergiori galdera sorta egitera. 6

Deustuko eskola **Eskolak** 10

Jabetza aitortzeko erritualak Lege Zaharrean **Behin batean** 12

"Bilboko lehen lerroa" **Artikulua** 14

berbetan
LEIRE MURGUIALDAYrekin

Ezohiko egoera bizi du jendarteak azken urte honetan. Pandemiak geure burua gehiago ezagutzeko parada eman digu hiru hilabeteko itxialdiaren ondorioz, askorentzako egoera jasanezina bihurtu den arte. Osasun mentala hizpide, Leire Murguialday psikologoa elkarrizketatu dugu oraingoan. 16

Carola etxea (1905) **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

LITERATURA Adriano de Mataren lehen eleberria

ARTEA Artebik ateak itxiko ditu betiko

PINTXODROMOA Bakailaoa pil-pil erara

KULTUR TXOTX Maddi Argote Ledesma eta Libe Martinez de Rituerto Zeberio

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Iker Basabe Mendizabal
Ikaslea deserrian

Agurra

Panfletario eta axolagabe izatearen arteko hari fin-finaren artean dantzan ibiltzea zen nire hilabete hauetako helburua. Gaiaren aukeraketa konplexuak eta etengabeko idazte egitura baten aldaketan tematzeak antzutu ditu azken hilabetetako idazketa prozesuak. Kilometro gutxira zegoen deserria biderkatu eta hasieran txantxa modura hartutako izenburuak inoiz baino zentzu gehiago izan du azkenaldian.

Bitartean, sistemaren krudelkeria agerian jarri besterik ez da egin. Nire harridurarako, ostera, bizitzaren gozotasunari, zeruaren urdintasunari, olatuen mugimenduari men egiten dioten adierazpen artistikoak biderkatu besterik ez dira egin gurean. Batzuen oasi baten diskurtso anakronikoa erosiz, errealitate *molongi superguay* - finean, kapitalismoa- saldu nahi izan digute gainerakoei.

Gazteak inoiz baino kriminalizatuago gauden honetan eta etorkizun beltza dugun honetan, ikusmira lasaigarri eta *rollo-onismoaren* kontrako lubakian, beti. Mafia Lasaiak dionez: “A los chavales no les culpo de na, y no me culpo de na, gerora begiratuz ilun baitago dena”.

Plazer hutsa izan da txikitatik etxera erregularki iritsi den aldizkarian idaztea. Aitite eta amama harro egongo lirateke piperrik ulertzen ez duten testuei begira. Hori irabaztea da.

Maider Zalbidea Pardo
Pedagogiako ikaslea

Ureztatzen jarraitzeko PREST!

Hasiera guztiek dute bere amaiera. Hamaika hilabetez idazten ibili ondoren, heldu zait agur esateko ordua, beste batzuei haien iritzia emateko tokia uzteko ordua; urte honetan idazteko asko egon delako, baina oraindik ere asko geratzen delako.

Deustuko herriak duen botereaz hausnartzera eraman nau bereziki iritzigile gisa jarduteko aukera honek. Irailean hasi nintzen atal honetan idazten, askok errutinara buelta egin genuenean. Iraila ezjakintasunaren sinonimoa zela esanez bukatu nuen testu hura, eta ia urtebete pasatuta, ezjakintasunean jarraitzen dugu.

Baina asko dira Deustuk izan dituen eta oraindik ere dituen altxorrak. Zaintza eta elkartasun sareak, Jai Batzordeko diru-bilketa, kalejirak, inauteriak, jaiak, umeen aisiarengatik borrokatzen duten taldeak... eta nola ez, esku artean duzuen aldizkaria, euskaraz transmititzeko aukera ematen duena.

Mundua ez dugu konponduko baina gutxienez, herrian gure hazitxoa landatu eta eguneroko arazoei aurre egiteko buruari bueltak eman dizkiogu herritarrok. Eta ereindako hazi hori ureztatzen jarraitu behar dugula argi dago.

Eskerrik asko honelako aldizkari bat egotea posible egiten duzuen guztioi, idazten lagundu didazuenoi, hilez hile irakurle sutsu izan zaretenoi, eta eskerrik asko ere aukera eman didazuenoi. Plazer hutsa izan da. Segi dezagun ureztatzen jarraitzeko PREST!

Ladur Labat Larbi

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Sestanyol de Migjorn (Mallorca)
Lanbidea: sukaldaria

“ ’SOS turismo’ irakur daiteke Mallorcako hainbat karteletan ”

Euskal Herriko sukaldaritza maletan sartu eta Mallorca hegoaldeko jatetxe batean sukaldari lanetan dabil Ladur duela hiru urtetik. Udako denboraldia dagoeneko hasita, lan eta lan dabilela aitortu digu.

Testua
Nerea Cubillo Urkizu

Noiz eta zergatik joan zinen Mallorcara?

Mallorcako hegoaldean dagoen Sestanyol de Migjorn herrira etorri nintzen duela hiru urte eta heldu nintzenetik sukaldari gisa ibili naiz lanean.

Lanean asko nabaritzen duzu udako denboraldia?

Bai, ekainetik aurrera jantokia beteta izan ohi dugu egunero. 300 pertsonarentzako kozinatu ohi dugu eta zoramen hutsa izaten da.

Zein da Mallorcako zure platerik gogokoena?

Sarraski frijituak edo Tumbet izeneko entsalada oso ohikoak dira hemen. Azken honek Euskal Herrian egiten den ozpin-olioaren antza dauka, baina antxoarekin egin beharrean hemen tomatearekin, piperrarekin eta tipularekin egiten dugu.

Nola bizi dute Mallorcakoek udako turistifikazioa? Giroa asko aldatzen da?

Betikoa: batzuk nazkatuta dauden bitartean beste batzuk turismotik bizi dira, eta ‘ongi etorri’ esaten diete kanpotik datozenei. Hori asko nabaritzen da hemen, ‘SOS turismo’ irakur daiteke kartel askotan.

Zure herrian hotel asko daude?

Bat ere ez. 30 kilometroko itzulinguruan ez dago hotel bakar bat ere eta gainera turistarentzako toki nahiko ezezaguna da. Uhartearen hegoaldeko inguru hau deskubritzen dutenean asko gustatzen zaie, izan ere, Mallorca zaharrak zituen ezaugarri asko mantentzen dira gaur egun herri honetan eta hemen inguruan dauden hondartzak oso politak dira. Hala eta guztiz ere, irailaren 2tik aurrera udako giroa eten eta lasaitasuna itzultzen da.

Euskal plateren bat sukaldatzeko aukera izan duzu bertan?

Bai, noski! Aurreko astean jatetxearen urteurrena ospatu genuen eta 180 pertsonarentzako bakailaoa pil pil eran sukaldatu genuen. Erronka handia izan zen niretzat plater nahiko zaila delako, baina ondo atera zitzaigun. Urtean zehar bakailaoa bizkaitar erara sukaldatu ohi dut, baita porrusalda ere. Menu goxoa ekarri diet eta asko gustatu zaie egia esan.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Itsasoa eta inguruan ditudan hondartzak. Herri honetan dagoen lasaitasuna ere paregabea da.

Eta gutxien?

Gutxien gustatzen zaidana udako beroa da, baina horri esker bizi gara, beraz, ezin naiz asko kexatu.

Zer da gehien faltan duzuna?

Lagunak batez ere. Ni bisitatzera etortzen dira Mallorcara.

Katalana ikasi duzu?

Nahikotxo. Hala ere, hemen mallorkera asko hitz egiten da eta nire pisukideek ere erabiltzen dute. Katalanaz bereizten ikasten hasi naiz dagoeneko.

Eta zuk, euskara irakatsi diezu?

Nire pisukideari bai, bera Euskal Herrian bizi izan da eta hitz batzuk ulertzen zituen lehendik. Jatetxean, adibidez, agur esatera ohitu dira langileak eta “agur Ladur!” esaten didate.

Lan eguna Undabason

LURGAIA: BIZKAIKO BASOAK BERRESKURATZEKO AHALEGINEAN

Bioaniztasunaren kontserbazioa eta natura-ondarearen kudeaketa sustatzeko sortu zuten Lurgaia fundazioa duela 19 urte. Bizkaian espezie exotiko inbaditzaileak kendu eta bertokoak landatzen dituzte, betiere fokua basoen berreskurapenean jarrita. Luzarra kalean dute egoitza eta bertara hurbildu gara astearte goiz batean, Jon, Cristina eta Sergiori galdera sorta egitera.

Testua: Jone Gartzia Gerra **Argazkiak:** Lurgaia Fundazioa

Jon, Sergio eta Cristinarekin elkartu gara Lurgaia Fundazioak Luzarra kalean duen bulegoan. Elkarrizketarekin hastearekin batera, hainbat liburuxka eman dizkigute: batek baso bat zer den azaltzen du, besteak espezie exotiko inbaditzaileak zerrendatzen ditu, eta bertoko zuhaitz eta zuhaixkak identifikatzen dituen gida bat ere topatu dugu, besteak beste.

Lehena ireki eta zera irakurri dugu pinudi baten irudiaren alboan: “Hau ez da baso bat”. Azalpenak dio espezie bakarra landatu duten eremuak eta adin bereko zuhaitzenak ez direla basotzat hartzen, bertan ez direlako berezko harremanak eta prozesu naturalak gauzatzen. Izan ere, produkziora bideratutako zuhaitzak heldu bihurtu baino lehen mozten dira (eukaliptoen kasuan 12-15 urtean behin eta koniferoen kasuan 38-80 urtero, espeziearen arabera). Gainera, arrasean mozterakoan espezie begetal guztiak kendu eta lurzorua hondatzen da.

Bizkaiko natur inguruneaz kezkatua, 2002an Natur Ondarearen Kontserbazio eta Kudeaketarako Lurgaia Fundazioa sortu zuten. Lau lan ildo nagusi ditu: boluntariotza, lur eremuen kustodia akordioak eta dibulgazioa. Gaur egun, 450 hektarea baino gehiago kudeatzen dituzte zaintza akordioen bidez (dohaintzan edo erabiltzeko lagata), non 35 espezie desberdinetako 150.000

Lan eguna Undabason

zuhaitz eta zuhaixka baino gehiago landatu dituzten, eta 2.000 pertsonako boluntario sare zabala osatu dute. Gainera, 2008tik Muxikan azalera handiko baso bat sortzeko proiektua dute eskuartean, Undabaso.

Undabaso

Prozesu luzea

Baso bat sortzeko pazientzia ezinbestekoa da. Zuhaitz handiak ikusi ahal izateko 15-20 urte nahikoak dira. Ordurako, badirudi estalita dagoela arbolak elkarren segidan daudelako, baina Lurgaiako kideek azaldu digutenez, oraindik ez dira gertatzen baso heldu bateko prozesu ekologikoak, horretarako 100 urte itxaro beharko ditugulako.

Haien ustez, natura osasuntsu bat izatea da garrantzitsuena prozesu horretan, ez, ostera, berehala paisaia ederra lortzea edo paseatzeko leku atsegina izatea. Horregatik, adibidez, ez dute sastrakarik kentzen, lurzoruarentzako elikagai baitira: "Landatu eta 40 urtera, sastraka desagertuz joango da, zuhaitzen itzalak ez baitio hazten utziko, eta orduan paseatu ahalko dugu bertan". Basoak berreskuratzean gizon-emakumeon eskua ahalik eta gutxien nabaritzea nahi dutenez, ez dute lerrokatzerik egiten landaketetan. "Naturak gauzak ondo egiten dituela sinetsi behar da, eta pazientziaz egiten utzi. Inor ez da natura baino hobea basoak egiteko, gu soberan gaude", esan digu Jonek.


Lan eguna Undabason

"Zuhaitz asko dago, baina natura gutxi"

Basoak berreskuratzeko urratsak argiak dira: lehenik, zaintza akordioa sinatzen dute lurjabeekin; gero zaborra eta pistak garbitzen dituzte, baina lehen aipatu bezala, sastrakarik ez dute kentzen; hurrengo pausua espezie exotiko inbaditzaileak kentzea da, eta bertako espezieen haziak landatzea. Lehenengo urteetan aleak babeski batzuekin inguratzen dituzte, animaliekin eta beste landare batzuekin lehiarik ez izateko. Urte batzuen buruan, babeskiak kendu eta beste lursail batzuetan berrerabiltzen dituzte. Eremuen jarraipena egiten dute, baina, mantenurik ez, horretaz natura bera arduratzen baita.

“Naturak gauzak ondo egiten dituela sinetsi behar da, eta pazientziaz egiten utzi”

Nola aukeratu haziak?

Bertoko haziak landatzen dituzte, baina, ez edozein eta edonon ere. Inguruko zuhaitzak aztertzen dituzte, eta lekua, lurzorua eta orientazioa kontuan hartzen dituzte. “Ez da gauza bera landatzen ibai ertzean, itsas mailan eta eremu altuago batean”, argitu digu Sergiok. “Ekologia irizpideak erabiltzen ditugu, ez dugu haltzik landatzen Gorbeiako puntan Bizkaiko espezia izanagatik, eta ez dugu pagorik landatzen itsasoaren maila, Bilboko Udalak egiten duen bezala”, gaineratu du Jonek. Baina, ez da beti lan erraza haziak aukeratzea, bere hitzetan, egin den ustiapena hain intentsiboa izan da, ezen espezieak galtzen joan baitira. “Haritzaren, pagoaren, gaztainondoaren eta artearen alde egin dugu askotan, eta beste espezie batzuk desagertuz joan dira”, dio.

Hala ere, gehien gustatzen zaiena eukaliptoak eta pinuak egon diren lurretan esku hartzea da. Orain zenbait eremutan espezie horiek kentzen ari dira, udazken-neguan landaketa egin ahal izateko. Zuhaitzak lagatako lurretan ereiten dituzte, zaintza-akordioen bidez. Argi dute baso baten prozesu ekologiko guztiak bete-betean egin ahal izateko ahalik eta eremu zabalena behar dela. Horregatik, 2008az geroztik Urdaibaiko Biosfera Erreserban, Undabason (Muxika), 156 hektarea baino gehiagoko proiektu batekin ari dira. Ustiapenerako izandako

Quercus petraea basoa

Eukaliptoak

Pinuak Urdaibain

basoak autoktono bihurtu nahi dituzte, eta bertan zabaltzeko aukera handia dutenez, lurrak erosi ere egin dituzte diru-bilketa kanpaina baten bitartez. Cristinak azaldutakoaren arabera, “hori da etorkizunean lurrak kontserbaziorako soilik erabiliko direlako benetako berme bakarra”.

Nola lagundu

Elkarteari laguntzeko hainbat bide daude. Bazkide egin zaitezke, auzolanetara hurbildu, dirua eman edo bertoko zuhaitzak landa ditzaten lur eremu bat utzi. Posta-zerrenda bat daukate eta horren bitartez ematen dute lan egunen berri. 2020an, Covid19a gora-

Lan eguna Undabason

behera, 68 jardunaldi egin zituzten, eta aurten ostegunero antolatzen dituzte, nahiko luketen baino gutxiago, ordea. Astero-astero jende andana gerturatzen da lanerako prest, 300 pertsona inguru aldiro. Jardunaldietan espezie inbaditzaileak kentzen dituzte, bertokoak landatzen dituzte, eremuak garbitzen dituzte…

Horrez gain, hilean behin hitzaldiak eta txangoak egiten dituzte auzoan eta itsasadarrean zehar. Landare inbaditzaileen txangoa antolatu ohi dute, auzoetako hegaztiak ezagutzekoa eta itsasadarraren bilakaera azaltzen duena hondakin-uren araztegia eraiki zenetik. Arangoitin hastapeneko ornitologia ikastaroa egiten dute, eta zuhaitzak eta zuhaixkak erakusten dituzte. Hitzaldien eta liburuxken bitartez kontzientziazioa eta dibulgazioa lantzea ere helburu dute Lurgaiako kideek. Webgunean aurkitu ditzakezue hainbat animalia eta landareren inguruko liburuxkak.

Instituzioei kexu

Jonek azaldu digunez, Bizkaiko lurzoruaren %75 pribatua da eta beste %25 publikoa (Udalen eta Aldundien esku), baina laborantzarako erabiltzen den azaleraren ehuneko berdina da bietan, hau da, lur publikoan ere pinuak eta eukaliptoak landatzen dira. Lurgaiako kideak kexu dira ez dagoelako lurzoru publikoari buruzko araudirik, edo, baldin eta badaude, ez direlako betetzen. Aldundiek, naturaren interesak zaindu beharrean, ekonomiaren interesak zaintzen dituztela diosku Jonek eta Sergiok hau erantsi: “Areago, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dira bertoko basoen ustiapenaren sustatzaile nagusiak”.

Lur jabe pribatuei dagokienez, basogintzako enpresen eskuetan kontzentrazio-prozesu bat gertatzen ari da. Sergioren hitzetan, orain arte jabe asko eta txikiak egon dira, 13 hektareako lursailetakoak, baina landa lana utzi ostean, zenbait enpresa ari da lur horiek berenganatzen eta Foru Aldundiak badu bere erantzukizuna.

Normalean mendeetako gizon-emakumeen jardueraren ondorioz deforestatutako lurretan ereiten dira pinuak eta eukaliptoak, ia inoiz ez da pagadirik edota hariztirik mozten. Jonek azaldu duenez, Bizkaiko baso-soiltzea duela sei-zazpi mende hasi eta industrializazioan amaitu egin zen, duela 70 urte inguru. Orduan laborariak fabriketara joan ziren lanera eta, Aldundiak lagunduta, pinuak landatzen hasi ziren beren lurretan. Prozesu guzti honen ondorioak argi ditu: naturaren aniztasuna eta paisaia galtzea. Eta amaitzeko, azken erantsia: “Basoak gure izaeraren funtsa dira eta galdu ditugu, ustiapenerako baso-landaketak ezingo baitu inoiz ordezkatu benetako baso bat, eta hori da orain daukaguna”.

Euskararen Etxea

Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81

E-posta: info@euskararenetxea.eus
Metroa: San Ignazio > Lekeitio Irteera.

EKINTZA KULTURALAK SANI GIROTZEKO

Ez da erraza izan baina lortu dugu aurten San Inazioak ospatzea auzoarentzako programazio berezi eta egokitua prestatuz. Azken neurrien ondorioz, jolasak, kontzertuak eta film labur erakusketa baino ezin izan ditugu antolatu. Espero dugu datorren urtean ekintza gehiago egin ahal izatea.

Testua eta argazkiak: Saniko Jai Batzordea

Urtebete eta erdi pasa da jada pandemia hasi zenetik. Ordutik, jai herrikoiak ia geldirik egon dira, baina, txertaketa-kanpainari esker egoera hobetuz doanez eta neurriak zertxobait arindu direnez, Saniko Jai Batzordean lanean aritu gara auzoarentzako programazio berezi eta egokitua eskaintzeko. Uztailaren 24tik 31ra astebetez hainbat jarduera kultural prestatu ditugu Saniri bizia emateko.

Iaz, hainbat eta hainbat hilabetez egon ginen egoerara egokitutako ekintzak pentsatzen. Ziurgabetasun osoz ibili ginen lanean, itsu-itsuan. Ondorioz, buruan genituen hainbat jarduera ezin izan genituen aurrera eraman, adibidez, tabernei laguntzeko *pintxopotea*. Gainera, aurrez aurre ezin batzeak asko zaildu zuen prestaketa prozesua eta Jai Batzordearen indarrean eragin zuzena izan zuen. Azkenean, jai herrikoien aldeko manifestazioa egitea erabaki genuen, Bilboko Udalak jarritako oztopo guztiak salatzeko.

2021eko inauterietako helduen mozorrorik onena (Jai Alive)

Aurten, iaz ez bezala eta oztopoak oztopo, jarduera asko genituen prest auzoari eskaintzeko. Azken asteetako egoera zela eta, Udalak neurri murriztaile berriak zehaztu zituen eta gure programazio ia osoa

2020ko uztailaren 24ko manifestazioa

bertan behera utzi zuen. Kuadrillen arteko kalejira batekin hasi nahi genuen astea, bazkari herrikoiak egin norberak bere janaria ekarrita, auzoa girotzeko kalejira musikatuak…

2019ko kuadrillen argazkia

Udalak baimendutako ekintzak gutxi izan arren, ahal genuen guztia aurrera eramatea erabaki genuen. Hori dela eta, uztailaren 24, 30 eta 31n kontzertuak izan ditugu Levante plazan giro ederrean eta, nola ez, neurriak zainduta: edukiera mugatua, aulkiekin eta aldez aurretik izena emanda.

Uztailaren 25ean, igandea, adin guztietarako mahai jolasak izan ditugu. Hurrengo egunean Errondoko Auzo Etxean garai guztietako Saniko film labur onenak proiektatu ditugu. Bestalde, umeen eguna ospatu dugu uztailaren 27an, hurrengo egitarauarekin: goizez, jolasak eta tailerrak Txepetx aisialdi taldearen eskutik; arratsaldean mahai jolasak, partxisa eta kartak hain zuzen ere; eta, eguna amaitzeko, zumba.

Auzo bazkaria Errondoko Auzo Etxean

Oztopoak oztopo, aurrera begira

Bilboko Udalak azkenengo mementora arte ez ditu jai herrikoien inguruko behin betiko neurriak zehaztu eta aste berezi hau hasi baino egun batzuk lehenago ere, aldaketak egin behar izan ditugu.

2019ko kuadrillen argazkia

Datorren urtean espero dugu jaiak ohiko formatura bueltatzea, auzoak erantzun ona izatea eta jendea motibatuta egotea. Saniko Jai Batzordetik helburu hori lortzeko lan egingo dugu behintzat.

Auzo bazkaria Errondoko Auzo Etxean

JABETZA AITORTZEKO ERRITUALAK LEGE ZAHARREAN

Harria jaurti uretara, teila eta eskutada bat lur eman, ateak eta leihoak zabaldu eta itxi... ekitaldi erritual askok esanahi sakona eduki zuten antzina eta gaur zeharo galdu dira.

Testua: Hektor Ortega

Erritualak ikertzen hasten direnean nekez pentsatzen dugu gurekin eta gure hiri moderno hauekin zer ikusirik dutenik. Baina eduki badaukate, handia gainera. Adibidez, alkate izendatu berriak berehala hartuko du makila eta goian altxatuko du, duela bostehun urte egiten zuen bezala. Beste erritual batzuk, ostera, ahaztuta gelditu dira, batez ere haien funtzioa galdu egin delako. Beharrezkoak ez badira, desegiten dira. Gaur galdutako horiek ekarriko ditugu gomutara.

Aro Modernoan, XVII. eta XVIII. mendeetan, abuztuaren 24an, San Bartolome egunez, Bilboko alkatea Deustura etortzen zen bere segizio ofizialaz, alegia, udal kargudunak eta multzoari behar bezalako handitasuna ematen zioten bestelako funtzionarioak, tartean idatziz fedea eman behar zuen eskribaua. Deustuko tabernak ikuskatu ostean, behin ere hutsik egin gabe, Elorrietara jotzen zuen. Han, Deustua eta Erandioren arteko mugatik hur, Lutxanako dorretxea uraz bestaldean, Bilboko udaleko sindikoak zeregin bitxia zeukan: harria bota behar zuen ibaira, uretara, Bilboren jabetzaren adierazgarri.

Bitxia. baina igual ez hainbeste. Gomutara dakarkigu, duda barik, oraindik ere Bermeoko alkateak Izaro uhartearen parean teila uretara botatzen dueneko ekitaldia, "honaino heltzen dira Bermeoko itoginak" esatearekin batera. Elorrietan

honela egin zuten bilbotar agintariek, esate baterako, 1709an urtean, eskribauak jaso zuenaren arabera: “Elorrieta esaten dioten lekura heldu ziren, Lutxanako dorretxearen aurrean dagoen ibaiertzera, Sepulkro esaten dioten aldean, eta bertan, tarte batez gelditu eta jabetza ekitaldia egin zuten eta sindiko jaunak harria jaurti zuen ibaira jabetza horren erakusgarri”. Ekitaldi horrekin urtero berritzen zuen Bilbok ur horien gainean zeukan jabetza.

Etxeak eta lursailak

Etxeek ere erituala behar zuten ugazaba berritzen zieten bakoitzean, hala herentziaz jasotzean nola erosi ostean. Ekitaldia egin arte, ugazaba berriak ez zuen lortzen erabateko jabetza ondasun horren gainean. 1592an Deustuko Elorriaga baserria ugazaba berriari eman zioten, salmenta judizial baten ondorioz. Auzitegiko agenteak (prestameroak), Bartolome Fernandez de la Conchak alegia, Domingo Santa Gadea ugazaba berria eskutik helduta sartu zuen etxean eta behin barruan honek ateak ireki eta itxi zituen. Ondoren etxetik aterarazi zituen aurreko ugazaba eta errenteroak. Eta etxearen jabetza aitortzen ziola erakusteko, “lurra, teila eta makila bat” eman zion Santa Gadeari. Azkenik, galdetu ere egin zion ea pozik zegoen etxearen jabetzarekin. Etxean egindakoaren antzekoa izaten zen arlo, oihan, solo eta ortuen jabetza emateko ekitaldia. Elorriagan beresi bi, soloa, ortua, sagastiak, gaztainadiak, hariztiak eta beste lursail batzuk eman zizkioten ugazaba berriari, “dándole en señal de posesión, tierra, oja y rrama”.

Batzuetan etxeko ateak ez ezik, leihoak ere irekitzen zituen ugazaba berriak. Ikusten denez, ekitaldi zeharo sinbolikoa zen. Baina egin beharrekoa, hori egin arte ez baitzen gauzatzen jabetza-aldaketa. 1768ko ekaineko egun batez eskribaua Deustuko Basabe Urkixo baserrian agertu zen Jose Ignazio Sobiñasi jabetza emateko. Herentzia bidez jaso zuen Sobiñasek, Ignazia Fano bere amak hala erabakita. Baserriak etxebizitza bi zeuzkan. Txikian Nikolas Fano eta Paskuala Basauri senar-emazteak bizi ziren, errentan. Eskribauak agindu zienean, etxetik atera ziren. Etxe printzipalean, ostera, Valentin Basabe bizi zen, Jose Ignazio Sobiñasen koinatua eta herriko jauntxo handienetakoa. Eskribauak Basaberen atea jo zuenean, inork ez zuen ireki. Ondorioz, egun hartan ez zioten Sobiñasi etxearen gaineko jabetzarik aitortu. Zertan esanik ez dago, Valentinek beretzat nahi zuen koinatuaren baserria.

Jabetza emateko bezala, jabetza ez emateko ere erituala zeuden. Segurutik denborarekin formula idatzi hutsa bilakatu ziren, praktikara eraman gabe, baina herentziaren oinordekoa izendatzerakoan, emaileek zerbait eman behar zieten herentziatik kanpo gelditzen zirenei. Eta baserrien kasuetan, ohikoena izaten zen etxaldeko zuhaitzik urrunena ematea. 1670ean Mariaotsoa Zeberitxak bere testamentuan Deustuko Ginea (XX. mendera Giñako gisa heldu zen) etxea seme Simon Mendietarentzat laga zuen eta, zehaztu zuenez, “aparto a las seis hijas mías con seis árboles, los más últimos de los que tengo en el campo de Andechaga, con su rrays y rrama conforme dispone el dicho fuero”. Eta herentzian dirurik sartuz gero, erreal bat ere emateko agindu behar zuten.

kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

AUZOKO MERKATARITZARAKO BESTE AUKERA BAT

Lola Vaamondek, Hiru Auzo merkatari elkartearen etapa berri honetan idazkariak, gurekin hitz egin du elkartearen berreraketari buruz eta honek Ibarrekolandan, Elorrietan eta San Inazion dituen planei buruz.

Testua: Andoni Lopez Virues **Argazkiak:** Hiru Auzo Elkartea

Ezkerretik eskuinera: idazkaria, diruzaina, lehendakariordea eta lehendakaria

Hiru Auzo urteetan aritu zen Elorrieta, San Inazio eta Ibarrekolanda auzoetan lanean, baina, arrazoi ezberdinengatik bere jarduna eten zuen 2019an. Lola Vaamondek adierazi duen bezala, pandemiak utzi duen egoera honetan merkatarien arteko elkartasuna beharrezkoa zen. Horretarako, urteetan auzoan lanean ibili diren lau merkatarien taldea osatu dute: Iñaki Alcubilla Arco ilapandegiko jabea lehendakaria izango da, María García Joyería Tic Tac-eko jabea lehendakariordea, Optica Avenidako Agustín González diruzaina, eta Vaamonde ileapaindegiko Lola Vaamondek idazkari lanak egingo ditu.

Maiatzaren 11n aurkeztu zuten zuzendaritza batzorde berria. Helburuen artean, besteak beste, enpresa handiek hiru auzoetan sortzen duten egoerari aurre egin eta merkataritza txikia baztertzurik ez geratzea dituzte. David Goliaten aurkako analogia erabiltzen du Lolak egoera deskribatzeko, baina aldi berean, argi dauka Hiru Auzo merkatari txikien arteko elkartasuna indartzeko erreminta bat izan behar dela.

Indartsu aurkeztu da zuzendaritza batzordea, nahiz eta momentuz kide asko ez egon, aurreko taldearen ondorioz askok utzi zutelako. Kide berriak batzen diren heinean, gero eta diru gehiago izango du elkarteak. Diru hori esparru ezberdinetara bideratuko da, baina bereziki, auzoko merkatariei baliabideak eskaintzeko: hitzaldiak, formakuntza, ikusgarritasuna… Kide berriekin elkartea indartzea ere kokatu dute helburuen artean.

Merkatari berriekin ez ezik, auzoan dauden erakunde ezberdinekin lan egiteko prestutasuna aurkeztu du elkarteak, adibidez, Jai Batzordearekin. Gainera, adierazten du aldebikotasuna beharrezkoa dela ekintzak sortzeko momentuan, edonork eman dezakeelako ideiaren bat helburua auzoari ekarpen positibo bat egitea bada. Lehen zeuden kideak berreskuratzea garrantzitsua da, baina orain sartu direnei eta sartuko diren berriei ere haien lekua eman nahi diete etapa berri honetan.

Lola Vaamondek argi utzi du lan egiteko eremua hiru auzoak direla eta bakoitzak bere ezaugarri propioak dituela. Behin eta berriro errepikatu du beharrezkoa dela hiru auzoak Bilbon kokatzea, erreferentzialtasuna irabaztea eta kanpoko jendea auzoan kontsumitzea, baina, batez ere, auzoko jendea auzoan gelditzea eta aukera ezin hobea aurkitzea San Inazion, Ibarrekolandan eta Elorrietan.

Etapa berri honetan aurretik ikasitakoa aplikatu nahi dute eta, nahiz eta haien hitzetan, dena ez jakin, asmo onena dute elkarrekin lan egiteko. Argi utzi dute denek batera arraun egin behar dutela eta auzoetako merkataritza indartzeko beharrezkoa dela merkatari guztien laguntza eta gogoa, aurretik adierazi den bezala, aldebikotasun hori sustatuz. Elkarteak Facebooken (Hiru Auzo) eta Instagramen (@hiruauzo_elkartea) profila du, eta informazioa eskaintzeko eta zalantzak argitzeko helbide elektroniko bat sortu dute: hiruauzoelkartea@gmail.com.

“BILBOKO LEHEN LERROA”

Kolonbiako protestetan dihardutenei laguntzeko hainbat ekintza egiten dituzte euren buruari ‘Bilboko lehen lerroa’ deitzen dieten zazpi kideek. Dirua biltzen dute bertako laguntza-mahaira bidaltzeko, eta horrela, prozesu sozialak laguntzeaz gain, berehalako asistentzia ematen dute, janari bilketa edo laguntza medikoaren bitartez, esaterako.

Testua: PREST! **Argazkiak:** Yajaira Vargas Velasquez

Apirilaren 28an lehertu ziren protestak Kolonbian, pobreziak, hamarkadetako klase desberdintasunek eta Gobernuaren erreforma politikoek bultzatuta. Aurretik ere protesta oldeak egon ziren, baina 2021eko ‘Paro nazionalak’ oihartzun handia izan zuen nazioartean, jasandako errepresio bortitzaren ondorioz. Temblores GKEak hilabete bakarrean poliziaren 4.687 indarkeria kasu erregistratu zituen, horietatik 44 erailketa eta egiaztapen prozesuan dauden beste 29 hildako.

Nazioarteko oihartzuna baretu da, baina protestak ez dira eten eta abiarazitako prozesu sozialak dinamizatzen saiatzen ari dira hainbat eragile. Arazoa errokoa bada ere, berehalako laguntza behar da hainbat eremutan: asistentzia medikoa, janaria banatzea, jazarpena pairatzen duten familiak laguntzea, senideak galdu dituzten sendiak laguntzea…

Horrela, Arangoiti, Deustu, San Inazio, Basurto eta Durangoko zazpi lagun elkartu ziren dirua bildu eta Kolonbiako laguntza-mahai batera bidaltzeko. Gehienak Calin (Kolonbia) jaiotakoak dira, sumindurak eztanda egin zuen hirikoak. Aldez aurretik elkar ezagutzen zuten, Bilbon antolatutako manifestazioetan eta Deustun egoitza duen ASOCOLVAS Euskalw Herriko Kolonbiarren elkartean topo egindakoak baitira. Euren helburua Kolonbian gertatzen ari dena ikusarazteaz gain, hemendik laguntza eman ahal izatea da.

Bertako kide den Yajairak kontatu digu dirua biltzeko parrillada solidarioak egiten dituztela eta orain kamisetak eta txapak saltzen hasiko direla. Bildutako dirua arlo askotan lan egiten duen laguntza-mahaira bidaltzen dute. Yajaiararen hitzetan, berehalako arreta ematen dute, familiaren sostengu ziren seme-alabak galdu dituzten gurasoei laguntza ematen diete, polizia jazarpena pairatzen dutenei babesa ematen diete, komunitatearekin lan psikosoziala egiten dute, eta prozesu guztia dokumentatzen dute, memoria historikorako. Bere ustetan prozesu sozialak elikatzen jarraitzea oso garrantzitsua da, eta aipatu digu azken asteetan Kolonbian autozaintzan, autobabesean, hausnarketa kolektiboan, formakuntzan eta espazio komunitarioak berreskuratzen lan handia egiten ari direla.

Euren muga guztiekin ahal dutena egiten dutela esan digu Yajairak: “Gehiago egin nahi genuke, baina oraingoz hau da egin dezakeguna, ez baitaukagu esperientziarik eta deialdiak bultzatzeko gaitasun handirik”. Jakitun dira dirua bidaliz arazoa une batez arinduko dutela, baina ezingo dutela errotik konponduko. Horregatik, eskuak zabalik dituzte taldera batu eta ideiak eman nahi dituen edonorentzat.

LEIRE MURGUIALDAYrekin

Psikologoa

“Gizarte honetan psikologia zerbitzu

Ezohiko egoera bizi du jendarteak azken urte honetan. Pandemiak geure burua gehiago ezagutzeko parada eman digu hiru hilabeteko itxialdiaren ondorioz, askorentzako egoera jasanezina bihurtu den arte. Osasun mentala hizpide, Leire Murguialday psikologoa elkarrizketatu dugu oraingoan.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

bat ordaindu ezin duen jende asko dago”

Zer ikasi zenuen?
Psikologia gradua ikasi nuen Donostian, Euskal Herriko Unibertsitatean. Horren ostean hezkuntza ez formalaren baitan formakuntza asko egin ditut generoaren, feminismoaren eta osasun mentalaren inguruan.

Psikologiak adar asko ditu eta oso zabala da. Zeinetan zentratzen zara?
Zaila da esatea alor bakar batean zentratzen naizela, alde batetik eta bestetik ikasten joan naizelako eta gustatzen zaizkidan gauzekin geratu naizelako. Orain, adibidez, Gestalt formakuntza ikasten ari naiz. Alor humanistikoarekin lotuta dago eta hori da gustatzen zaidana. Ikuspegi psikosoziala ere asko lantzen dut.

Gorputz kontzientzia ere lantzen duzu. Zer esan nahi du horrek?
Latinoamerikako korronteetan eta osatze feministetan asko lantzen den teoria da eta minak gorputzean nola ezartzen zaizkigun ulertzean datza. Norbanakoen gaizki egoteak gaixotasun bat baino, prozesu bat bezala ulertzen du gorputz kontzientziaren teoriak. Azken batean, denok ditugu gaizki zein ondo egote prozesu ezberdinak eta askotan prozesu horiek gure gorputzetan instalatuta geratzen dira, maiz gaixotasun fisikoak ekarriz.

Transexualitatearekin zerikusia ere badu gorputz kontzientziak?
Baita ere. Genero ikuspegia eta feminista hor sartuta daude eta nik ere terapietan hori zaintzeko joera daukat.

Talde zein norbanakoekin bidelaguntzak egiten dituzu.
Koronabirusaren eraginez, taldeen bidelaguntza apur bat zaildu zaigu. Hala ere, guk uste dugu subjektua bere osatze prozesuan ez dela pasiboa eta pertsona aktibo bezala berak hartu behar duela prozesuaren agintea. Hortik dator taldeetako potentziala, izan ere, norbanako edo subjektu aktibo asko osatze prozesuetan elkartzen dituzunean potentzial handia sortzen da, norberak jarri ezin dizkion hitzak bestearengan aurkitzen dituelako.

Zer talde mota dira?
Egoeraren arabera tailer irekiak ala itxiak dira. Autoezagutzara edota garapen emozionalera bideratutako tailerrak modu irekian eskaintzen ditugu, baina zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboekin lan espezifikoagoa egin behar dugula ulertzen dugu. Indarkeria jasan duten emakumeengana zuzentzen baldin bagara, emakume taldeak izango dira. Era berean, migrazio prozesuetan dauden pertsonei zuzentzen baldin bagara, migratuak izango dira. Laburbilduz, profil batzuk zaintzeko joera dugu.

“Norbanakoen gaizki egoteak gaixotasun bat baino, prozesu bat bezala ulertzen du gorputz kontzientziaren teoriak”

▷ ▷ SAKONEAN

"Autoezagutza eta garapen emozionalari eta pertsonalari begira bestelako tailer batzuk ere eskaini nahi ditugu"

Espazio Lunarra gune holistikoa sortu berri duzu Hernanin beste kide batzuekin batera. Zertan datza?
Momentuz talde bat gara, lokal propioa izateko asmoa dugun arren, oraindik ez daukagu espazio fisikorik. Kultura-arteko ikuspegitik eta ikuspegi transferministatik osasun mentalari leku bat ematea da helburua. Espezialitate ezberdinak ditugun bost kide elkartu gara espazio honetan eta psikoterapiak emateaz gain, autoezagutza eta garapen emozionalari eta pertsonalari begira bestelako tailer batzuk ere eskaini nahi ditugu.

Beste psikologia zentro batzuekin desberdina da?
Bai, batez ere osasuna ulertzeko dugun moduagatik. Ez dugu uste burua eta gorputza banatuta daudenik, pertsona zikliko bezala, prozesu emozional askotatik pasatzen garela uste dugu eta hori hasieratik argi utzi dugu. Horrez gain, jatorri pertsonal ezberdina dugun bost emakume feministok osatzen dugu espazio hau eta hori ere potentzial handia dela deritzot. Espazio Lunarrean eskainiko ditugun zerbitzuak ere ugariak izango dira: teknika psikologiko klasikoetatik aldendu eta teknika artistikoak ere erabiliko ditugu, *arteterapia*, yoga eta argazkigintza, besteak beste.

Zein da bertan egiten duzun lana?
Momentuz denok egiten dugu dena. Guk egiten dugu psikoterapia, tailerrak lortzen eta dinamizatzen ditugu, eta aldi berean gure enpresa sortzeak dakarren lan guztia eramaten dugu aurrera: marketina, publizitatea, telefonoa hartu…

Zer da zuretzat osasun mentala izatea?
Norberaren buruarekin bakean bizi ahal izatea. Inkongruentziak onartuta, baina, moduren batean lasai bizi ahal izatea ditugun gaitz eta gabeziak onartuta. Nire ustez, ez da osasun mental kliniko bat, beste modu batean ikusten dut.

Gutxika aurrerapausuak eman diren arren, oraindik jende askoren arabera ohiz-kanpokoa da psikologoarenera joatea. Zer esango zenioke jende horri?
Pertsona bakoitza bere osatze prozesuaren jabe dela uste dut eta hortaz ez nuke inor psikologoarenera joatera konbentzituko. Besteak beste, norberak izan behar duelako gogoa eta aldi berean ezinegona laguntza hori jasotzeko. Halaber, zuk esan bezala, gero eta jende gehiagok normalizatu du psikologoarenera joatea beste edozein espezialista batengana joatea bezala, eta guk ere horrela ikusten dugu, gero eta jende gazte gehiago datorrelako laguntza eskatzera.

Zerbait gehiago egin daiteke hori norma-

lizatzeko?
Hasteko eta behin, oso pribatizatuta dagoen zerbitzu klasista da. Izan ere, horrek mugitu gintuen gu ere Espazio Lunarra bezalako zerbait sortzera. Gizarte honetan horrelako zerbitzu bat ordaindu ezin duen jende asko dago eta denok izan beharko genuke ahalmena horrelako laguntza bat jasotzeko. Bestetik, erakundeak gehiago mugitu beharko lirateke zerbitzu gehiago eskaintzeko, bai Osakidetzan, baita medikuntzatik kanpo dauden beste erakunde batzuetan ere. Gai hau beste ikuspegi batetik hartzen bada, alor sozialeko beste erakundeek ere zerbitzu hau beste publiko batentzako eskaini ahalko lukete, baina ez da dirurik bideratzen.

Artatze publiko psikologiko zein psikiatrikoak badu gabeziarik? Badago zer hobetu?
Ez dakit, ez naiz inoiz joan. Dena den, diru eta denbora asko inbertitu behar da zerbitzu publikoetan lan egitera heltzeko, oso zaila da. Artatze publikoan ez daukazu klinika pribatu batean eduki dezakezun askatasuna, hierarkia baten menpe zaudelako. Ikuspegi finko batetik baldintzatuta zaude ere. Hala ere, ez dut oso ondo ezagutzen ez nauelako inoiz erakarri.

Hainbat ikerketek baieztatu dute emakumeek depresio diagnostiko gehiago dituztela gizonek baino. Ados zaude?
Datuak badaude, horrela sinetsiko nuke.

Zergatik uste duzu horrela dela?
Nire ustez, sistema matxistaren eraginez, errazago diagnostikatzen da depresioa emakumeengan, eta gainera, oso modu orokortu batean. Izan ere, batzuetan badira depresiotik haratago doazen gaitzak, baina sakonago ez begiratzearren, depresioa diagnostikatzen zaie eta kito.

Antzeko zerbait gertatzen da elikadura nahasmendua duten pertsonekin, gehienak neska gazteak direla.
Sistema heteropatriarkala agertzen da berriz ere. Presio soziala, presio estetikoa eta rolen erreprodukzioa sistemak berak eragiten duen gaitz bat dela uste dut, eta noski, ez da gizarte guztietan ematen. Gazteak garenean ez gaude pertsona bezala eraikiak oraindik, eta eraikitze prozesu horren bidean oztopatzen bagaituzte halako ondorioak ekar ditzake.

Konfinamenduak eta segurtasun neurriek asko murriztu dute bizitza soziala, eta jende asko bakardadean, inolako harreman sozialik gabe egotera eraman dute. Nolako eragina izan du osasun mentalean?
Jende askorentzako oso gogorra izan da itxialdia. Gainera, etxean baldintza txarretan bizi diren pertsonak egon dira: 16 pertsona bizi diren etxe txikiak, erasotzailearekin bizi diren emakumeak edota armairutik atera ezin den gaztea gurasoekin bizitzen. Itxialditik atera ondoren ezarritako neurriekin asko mugatu dizkigute gaitasun sozialak eta beldurra ere hazi egin da. Ondorioz, XXI. mendean askoz 'elbarri sozial' gehiago ditugu inguruan eta beldurraren aitzakiapean desgaitasun sozial hori hazi egin da. Poliziaren beldur, birusaren beldur eta ingurukoek nola begiratuko diguten beldur bizi izan gara hilabete luzez.

"Uste dut erakundeak gehiago mugitu beharko liratekeela zerbitzu gehiago eskaintzeko"

ERRONKA SOLIDARIOA

Hiru maratoi solidario minbizia duten haurrengatik

Edu Zapata atleta deustuarrak hiru maratoi egin ditu hiru egunetan Aspanovas Haur minbizidunen Guraso Elkarteko Ospitaleko Laguntza Programarako dirua biltzeko. Crowfounding bat ere egin dute haur eta nerabeen eta haien familien bizi-kalitatea hobetu eta haurren minbizia ikusaraztea helburua duen proiektuarentzako. 'Bilbao 360º Aspanotxus' erronkaren barruan Edu Zapatak uztailaren 16, 17 eta 18an maratoi bana egin du Bilboko eraikin esanguratsuen inguruan. Lehena San Mames estadioari 52 itzuli emanez osatu zuen, bigarrena Begoñako basilikaren inguruan 140 bueltarekin, eta, azkena osatzeko 121 itzuli eman zizkion Arriaga antzokiari.

ESKUBALOIA

Garoa Sarrionandia-Ibarra Zuazora

Barakaldoko taldeak Buenavistako jokalari gaztea datorren denboraldirako fitxatu du. Zuazo Espainiako ligan mailarik goreneko taldea da, beraz, aurrerapauso handia izango da Garoarentzat. Aurten bigarren mailako San Adrian taldean aritu da eta, nahiz eta oraindik jubenila izan, datorren urtean seniorrekin arituko da. Oso denboraldi ona biribildu du Bilboko taldean, izan ere, jokatutako 24 partidatan 89 gol sartu ditu, hau da, 3'71 gol partidako. Garoa Arangoitiko eskolan hasi zen eskubaloian eta handik Bilboko San Adrian taldera joan zen. Hegalean jokatzen du eta ezker besoa du indargune handiena. Zuazon goi mailako jokalariekin arituko da pistan leku bat izateko: Anne Erauskinekin, Esti Velascorekin eta Isi Fernandez-Agustirekin. 17 urterekin eta batxilergo 2. mailan egonda, erronka polita du aurrean.

ARRAUNA

Deustu, ezinhobe

Ekainean eman genuen Deustu Arraun Taldearen denboraldi hasiera apartaren berri. Uztailean ere berri onak eman dizkigute etxeko arraunlariek. Uztailaren 11an Lekeition bigarren denbora onena egin ostean eta 17an Zumaian helmugara hirugarren iritsita, albiste hau idazteko momentuan ETE ligako sailkapenean bigarren doaz gure arraunlariak. Deustuko emakumeek 9'88 puntu dituzte, sailkapenburu den Tolosaldearen atzetik 0'87 puntura. Gainera, uztailaren 14an Bizkaiko traineru txapelketan bandera eskuratu zuten, Ondarroari 4 segundo aterata. Gizonezkoen ARC ligako bi taldeak ere maila ona ematen ari dira. Uztailaren 18an Orion jokatutako banderaren ostean 1. taldeko trainerua 7. doa sailkapenean eta 2. taldekoa hirugarren.

ERRIBERA

Uholdeak ekiditeko tangak eta kale berrien izenak

Bi ekaitz-tanga jarriko dituzte Erribera eta Zorrotzaurren gerta daitezkeen uholdeak ekiditeko. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aholkularitza emango dio Bilboko Udalari lankidetza hitzarmen bati esker. Ekaitz-tankeon helburua marea biziak eta euri-jasak daudenean ura galtzadan ez sartzea da. Tankeok estoldetatik iristen den euri-ura bilduko dute eta saneamendu-sarearen bidez hustu, hondakinak eta kutsadura handia izaten duen ur hau itsasadarrera iristea saihesteko. Depositu bat Artiacheko eraikinaren ondoan egongo da eta bestea Palera eraikinaren ondoan. Guztira 7,9 milioi euroko inbertsioa izango dute. Horrez gain, Bilboko Udalak uztailean jakinarazi ditu Zorrotzaurreko lau kale berrien izenak: Galletaginen etorbidea, Sabina de La Cruz, San Ignazioko zubia eta Kanaleko pasealekua.



Carola etxea

Urtea: 1905

Txema Luzuriaga

Carola etxea

Villa Carolaren irudi ez oso ezaguna, Landetxo-Quadra Salcedo familiarena zena. Ostean Beltran y Casado enpresak hartu zuen orubea eta, gero, 80ko hamarkadan, uholdeen ondoren, Deustuko Ikastola eta Kiroldegia bihurtu zen.

Bitxia da Carola etxearen izena. Izen honi buruz idatzi den literatura guztia kontuan hartua, Carola Garabiaren izena inguru horretan itsasadarra zeharkatzen zuen bidaiari batek eman ziolako ustea oso zabalduta dago. Baina, garabiaren izena txalet honengatik baldin badator?

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfonoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer egingo duzu oporretan?

Ander Arangoiti

Lan egin eta ahal dudanetan bidaia txikiak egin. Pasa den astean Errioxan egon nintzen eta datorren astean Galiziara joango naiz. Kontuz ibili behar gara eta gainera leku batzuetara joateko PCRak eskatzen dituzte.

David Deustu

Aste bateko oporrak izan ditut eta gainerakoa lanean emango dut. Egun daukadan egoeragatik udan ere lan egin behar dut.

Iñigo Deustu

Gurasoek etxe bat dute Sukarrietan eta urtero bezala han emango dut uda. Mendira joan, kanpinera joan… gustuko dut hori egitea.

Olatz Begoña

Cadizen eta urtero bezala Ezcarayn emango dut uda. Ez genuen urruti joan nahi eta erreserba ezeztatu daitekeen leku bat hartu dugu Cadizen, badaezpada. Urte oso gogorra izan da eta ezer ez egitera joango gara.

Mari Cruz Deustu

Hilabete oso bat egon naiz Puerto Banusen, Marbellan. Txertatuta dauden beste hiru lagunekin joan naiz.

Arantza Leioa

Abuztuan Fuerteventurara joango naiz 10 egun. Txertatuta nago baina bestela PCR proba egin beharko nuke. Beste egoera batean beste norabait joango nintzatekeen, agian Europara, baina aurten, badaezpada, Espainiar Estatuan geratzea erabaki dut.

>> LITERATURA

ADRIANO DE MATAREN LEHEN ELEBERRIA

Irailarekin ikusiko du argia Adriano de Mata Aragoneses deustuarraren lehen liburuak, 'Sanrokeetarako etxean'. Dokumentazio lan handia duen eleberri fikzionatuan, Gerra Zibiletik ihesean erbesteratu ziren hiru-neba arrebaren istorioa kontatzen du.

Testua: PREST! **Argazkiak:** Txalaparta

Lehen liburua argitara ematear du Adriano de Mata Aragoneses deustuarrak. 1984an sortua, ez da geldirik egon harrezkero: Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi zuen Gasteizen, Heidelbergen eta Bartzelonan; Bergarako eta Bartzelonako idazle-eskoletan ibilia da; eta makina bat hizkun-----tza menperatzen ditu, tartean, berriki ikasi dituen galesa eta innuera. Zenbait urtez itzultzaile eta hizkuntza-irakasle lanetan han eta hemen ibili eta gero, egun postaria da Montrealen (Quebec).

Liburu formatuko lehen argitalpena bai, baina *Sanrokeetarako, etxean* ez da bere lehen nobela. Bartzelonako idazle-eskolan egon zenean beste lan bat idatzi zuen katalanez, baina argitaratu gabe du oraindik. Mintzagai duguna euskaraz da eta irailean kaleratuko du Txalaparta argitaletxeak.

Lan mardula da *Sanrokeetarako, etxean*, 416 orrialdekoa, baina Garazi Arrula Ruiz editoreak azaldu bezala, "oso modu arinean kontatzen du eta haurren ikuspegitik kontatuta dagoenez eta hizketaldi asko dituenez, irakurtzen atsegina da".

Hiru-anai arreben erbestea kontatzen du, lehen urteak bereziki. 1937ko maiatzean Gerra Zibiletik ihesean Santurtzitik Erresuma Batura joan ziren Habana itsasontzian, beste lau mila haurrekin batera. Pirmin, Eusebio eta Aurea lekunberritarrak dira protagonistak. Sanrokeetarako, abuztuaren 16rako, alegia, etxean izango direla esan diete portuan agurtu berri dituzten gurasoek, negarrik egin ez dezaten, errepublikazaleek gerra laster irabaziko dutela. Ez zen horrela izan, eta gerratik ihesi, beste gerra batzuk ezagutu zituzten umeok, II. Mundu Gerra, besteak beste.

Sanrokeetarako, etxean liburuaren azala

Nobelan zehar hainbat paraje zeharkatzen ditu irakurleak erbesteratuekin batera: Santurtziko portutik abiatuko da, hortik Southamptongo portura (Erresuma Batua) joango da, gero Galesera…

Dokumentazio lan handia

De Matak urteak daramatza lan hau ontzen. Han eta hemen ibili da dokumentazio lana egiten: Euskal Herrian, Ingalaterran, Galesen… Artxiboko dokumentazioa eta garaiko argitalpenak aztertzeaz gain, orduko protagonista batzuk elkarrizketatzeko aukera ere izan du. Ondo aztertutako gertaera historiko hori oinarri hartuta idatzi du eleberri fikzionatua.

Hain zuzen, azpimarra hor jarri du Garazi Arrula editoreak: "Gaiaren inguruan dokumentazio asko dago bilduta, baina gure literaturan ez dago gaia bere protagonisten ahotsetik kontatzen duen fikziozko lan asko". Bada, irailetik aurrera beste bat izango dugu, deustuar batek euskaraz idatzia.

http://sarekada

Gentrifikazioaren aurka kantatuz

Ekainean eman zuten argitara Erriberako hainbat bizilagunek sortutako 'Paradisu isolatua' kantu berria. Egileek azaldu digutenez, "auzoan dauden arazoak" azaldu dituzte "auzokideen ikuspuntutik". Arazo berdinak dituen edozein lekutan identifikatuta senti daitezen bilatu dute, eta horregatik ez dute Erriberaren kanta izatea nahi, baizik eta aldarrikapen ohi bat. Oso-osorik Erriberan ekoitzi dute, BiziNahin, zehatzago. Abestia Alazne Astorgak konposatu eta idatzi du, eta berak jarri dio ahotsa. Gitarra Sararen ardura izan da, txalaparta ere badago, eta produkzioaz Karkabako kideak arduratu dira. Bideoklipa Pablo Perezek egin du. Abestia ekainaren 25ean aurkeztu zuten Erriberako jaietan, bi kontzerturen artean. 'Paradisu isolatua' Txitxardin Jai Batzordearen Youtubeko kanalean dago entzungai.

Behategiaren 'Euskal hedabideen urtekaria 2020' lana dagoeneko irakurgai

Behategia.eus webguenean aurkituko duzue 11 artikuluko urtekaria. Besteak beste, pandemia, zientziaren komunikazioa, euskarazko komunikabideen egoera eta emakumeen presentzia aztertu dituzte.

Euskal kantak ikasteko liburuxkak

'Kitarrazkantuak.weebly.com' webgunean euskal kantak akordeekin jotzeko zein abesteko bi liburuxka publikatu dituzte. 600 abestitik gora gitarrarekin zein ukelelearekin jotzeko akordeak eta abesteko hitzak aurkituko dituzue bertan.

>> ARTEA

ARTEBIK ATEAK ITXIKO DITU BETIKO

20 ikasturte dantza, antzerkia eta musika irakatsi ostean Artebik behin betiko etengo du jarduera, enpresa arazoak direla-eta.

Testua: Jone Gartzoa Gerra **Argazkiak:** ARTEBI

Artebi musika, dantza, antzerki eta gidoi eskolan ez da berriro klaserik emango, enpresa arazoak medio jarduera akademikoa behin betiko ixtea erabaki baitu. 2001-2002 ikasturtean sortu zen Artebi, Hiper-plaza eraikinean zegoen Juan de Antxieta zentroa itxi eta gero. Garaiko ikasleen gurasoek bultzatuta, irakasle batzuk ezaugarri bereko Artebi sortu zuten, sozietate mugatu enpresa forman. 20 ikasturte hauetan ez dira gutxi izan aurre egin beharreko oztopoak, 2008ko eta 2020ko krisiak tarteko, baina, azkenean, itxieraren arrazoia enpresa barneko lan gatazkak izan dira. Langile ohi batzuen diru-eskaerei aurre egin ezinik, irtenbide bakarra enpresa behin betiko ixtea izan dela adierazi dute Artebiko zuzendaritzako kideek.

Pilar Arana Marcos Artebiko zuzendariordeak zentroaren ibilbidea laburtu digu. Azaldu digunaren arabera, "Juan de Antxieta punta-puntako zentroaren itxieraren ondoren" sortu zen Artebi. Bertako ikasleen gurasoek zenbait irakasle bultzatu zituzten ezaugarri berdinak izango zituen eskola abiaraztera, seme-alabek ikasketekin jarrai zezaten eta irakasleak lanik gabe geratu ez zitezen. Izan ere, ez da edonolako zentroa Artebi. Dantza eta musika gradu arautuak eskaintzen zituzten, eta horrek "eskakizun gogor eta garestiak dakartza, esaterako, ikasgelen ezaugarri eta tamainari dagokionez", azaldu digu zuzendariordeak.

"Gurasoek den-denarekin lagundu ziguten, bakoitzak zekienarekin aholkuak eman zizkiguten eta ahalegina bideratu ziguten, hainbesteraino, ezen lokal honetako obra guraso batek egin baitzuen", eskertuta mintzo zaigu Arana. Ahalegin handiarekin, eta egun batetik bestera irakasle izateaz gain enpresari ere izatera igarota, aurrera atera zuten Bilbon bakarra zen aparteko ikastegia.

PALABRARISMOS

abuztuaren 20tik
irailaren 12ra

Dramaturgia
RAMÓN BAREA

Zuzendaritza
ITZIAR LAZKANO

Antzezleak
SARA BARROETA, NAGORE NAVARRAO, IÑAKI URRUTIA

Izan be, Bilbon dantza, musika eta antzerkia batera ematen zituen eskola bakarra zen Artebi, eta Euskal Herri osoan oinarrizko dantza gradua emateko homologatuta zegoen bakarra. Oinarrizko eta erdiko musika-irakaskuntza arautua ere bazuten, baita antzerkia zein gidoia ikasteko aukera. Instalazio guztiak gradu hauek eskatzen dituzten baldintzetara moldatuta daude, besteak beste, ateak eta zorua bereziak dira eta gelek ezaugarri jakin batzuk dituzte.

Krisiek kolpatuta

2008ko krisitik ahulduta zetorren Artebi. Dirulaguntzen jaitsierak eta ikasleen kuotak igo nahi ez izanak barneko egokitzapen batzuk egitera bultzatu zituen. 2020ko konfinamendua eta krisiaren areagotzeak, ostera, are gogorrago kolpatu zuen hezkuntza pribatuko zentro hau.

Etxeko konfinamendu garaian ikastaroetako batzuk online erara egokitu zituzten, baina beste batzuk ezin izan zituzten eman. 2021eko ikasturtea ziurgabetasun handiz eta taldekako ikastaroak ezin emateak ekarri zizkien kalteekin hasi zuten. Izan ere, taldekako klaseak dira eskolaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzen dutenak. Etxeratze agindua 20:00etan ezarrita zegoenean, ere ikastaroak egokitu behar izan zituzten, batzuk ordu horretan bukatzen zirelako, eta aurreratzeak ikasle batzuk ezin joatea ekarri zuen.

Nolanahi ere, hau ez da eskaintza akademikoa moldatu behar izan duten lehen aldia. Zuzendariordearen hitzetan "gero eta haur gutxiago dago", eta horregatik helduentzako ikastaroak egiten hasi ziren orain gutxi. Orokorrean, eskola guztiei eragiten omen dien arazo demografikoa da, baina ikastegi pribatuetan eragin ekonomiko nabarmenagoa du.

Tristuraz azaldu digu Pilar Aranak Artebiren itxierak ekarriko duen hutsunea: "Pena handia da, nik maitasun handia diot guk muntatu dugulako, eta lan aldetik, harremanen aldetik eta alde akademikotik galera handia izango da". Gogor azpimarratu nahi izan du "zintotasun osoz eta ahalik eta kalitate onena eskaintzeko asmoz" jokatu dutela une oro, eta inolaz ere ez zela euren asmoa enpresa itxi behar izatea. "Lehenik, irakasleak garelako eta egiten duguna gustatzen zaigulako, bigarrenik, denok langabeziara goazelako, eta, hirugarrenik, ikasle eta familia asko atzean utzi behar ditugulako", diosku.

Esperantza izpi bat

Atsekabetuta eskolako materiala sailkatzen eta garbitzen aurkitu ditugu Artebiko langileak. EEE konkurtsalean daude orain, eta edozer gauza saldu aurretik itxaron behar dute. Nolanahi ere, Pilar Aranak aurreratu digu akaso irakasle batzuek proiektuari eusteko asmoa izan dezaketela. "Oraingoz, prozesu judizial honetan gaudenez, ezin dugu ezer egin, baina oso pozik egongo ginateke irakasle batzuek hau mantendu ahalko balute, beste ezaugarri batzuekin bada ere", aitortu digu esperantza apur batekin.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Bakailaoa pil-pil erara

Lehendakari kaleko 157. zenbakian aurkitu ditugu David, Lili eta pintxoz jositako barra dotorea. Denen artean arrakastatsuena bakailaoa pil-pil erara dela kontatu digute, eta horretaz mintzo gara uztaileko Pintxodromoan.

Zailtasun maila: ertaina

Egiteko denbora: 30-40 min

Prezioa: 2'50 - 3€, tamainarena arabera

Berezitasuna: inork ez die esan txarra dagoenik

Kontu batzuk

Hiru hamarkada bete ditu aurten Politena tabernak, baina horietatik hiru hilabete baino ez dituzte eman Davidek eta Lilik haren gidaritzan. Izan ere, aurreko jabeak erretiroa hartu eta erreleboa eman zioten apirilean. Lehendik ere "auzoko barrarik onena" gisara ezagutzen zela aitortu digute, eta fama hobetzeko asmoz dator bikotea. Egunero-egunero 100 edo 150 pintxo egin eta saltzen dituzte, askotarikoak: bakailaoa, olagarroa, tortillak... Asteburuetan itsasoko jakiak dira nagusiak, zamburiñak, bieirak eta txipiroi hankatxoak, besteak beste. Pintxoak eramateko ere prestatzen dituzte, eta bertan dastatu nahi dituenak eskuragarri du ardo aukeraketa bikaina.

POLITENA

Lehendakari Agirre 157

Asteartetik igandera 08:00-22:00

638 515 020

OSAGAIAK

Olioa
Berakatza
Bakailaoa
Pipermina
Gatza

Zelan egin?

Errezeta ohikoa jarraitzen dute Politenako bakailaoa egiteko: osagai onak eta maitasuna, sukaldarien hitzetan. Pausuz pausu, olioa berotzen dute, berakatza gehitu, ondoren bakailaoa egin eta ondo mugitu, 20 minutuz eragin behar zaio gutxienez saltsa lortzeko. Amaitzeko, pipermina gaineratzen diote.

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

MADDI ARGOTE LEDESMA

Dantzaria

MAITASUNAREN ITXIERA

Miren Gaztañaga eta Eneko Sagardoy. Eskrima jokaldi baten antzera ibili ziren haien arteko maitasunak dituen aferen inguruan eztabaidatzen.

Maitasunaren itxiera izeneko bi orduko obra honetan Pascal Ranbert ibili da zuzendari lanetan. Bi orduz, bi gizon-emakume, bata besteari bi errealitate ezberdin aurpegiratzen ibili ziren.

Atzera eta aurrera, aurrera eta atzera... Haien arteko harreman afektiboari eta sexualari eutsi nahi horretan etsi zuten azkenean. Arnasa indarrez hartu ostean botatako aire guzti hori erabili zuten bakoitzaren esperientziatik bizio guztiak mahaigaineratzeko.

Soilik lan honen atzean dagoen prestakuntza guztia nahiko arrazoi da ikustera joateko. Hori bai, obra ikusten amaitu bezain laster, zuk ere arnasa hartzea komeni, maitasunak duen errealitatea aurrez aurre jarriko dizulako.

LIBE MARTINEZ DE RITUERTO ZEBERIO

Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Hamaika_egunez gazte ugari
euskarak batu gaitu
Urruñan hasi, Larrun igo ta
Lekarozera jarraitu
Zugarramurdi, kontrabandoa
ezin gu inoiz lasaitu
Euskarabenturak ditu
hamaika_aurpegi alaitu
beste behin ere euskararen
sua dugu guk bizitu
hau hasi beste(r)ik ez dugu egin
ta ez dadila amaitu

Gazte euskaldun ausartek dute
horrela hasi udara
aurre aurre eginez eta gainditzuz
bakoitzak bere ikara
saiatu gara mugak lausotzen
eta saretzen euskara
hizkuntzarentzat taupada
guretzat indar ufada
guk gehitu dugun ale txiki hau
ere garrantzitsua da
jarrai zazue zuek zabaltzen
euskera lau haizetara!

ERRAZENA MUGIKORRAZ ORDAINTZEA DA

LABORAL Kutxa Pay App-arekin, EROSKETAK ORDAINTZEKO beste modu bat duzu. Segurua, erraza eta kostu gehigarririk gabea. Eguneratu eta hasi orain txartelarekin bezala mugikorrarekin ordaintzen.

LABORAL KUTXA PAY

Deskargatu App-a

LK PAY

LABORAL kutxa

Bada beste modu bat

www.bilbaoeuskaraz.eus

EGIN ZAITEZ BABESLE!

PREST! aldizkariak beste 20 urte iraun ditzan lagundu nahi?

Egin zaitez babesle!

Zure datuak betetzeko idatzi mezu bat helbide honetara:

prestharpide@gmail.com

***OHARRA:** Datorren urtetik aurrera PREST! eta BERBAIZUren babesle kuotak bateratuko ditugu. Helburua elkartearen egoera ekonomikoa egonkortzea eta autonomia handitzea da. Soilik era honetan lortuko dugu PREST! aldizkariak eta BERBAIZU Euskara Elkarteak luzaroan irautea.

2021ean 25 euroko kuota kobratuko du PREST!ek

2022tik aurrera hiru aukera eskainiko ditugu:

30€ gazte/langabe/prekario; 60€ kuota arrunta; 75€ familia

Babesleek hilero jasoko dute PREST! paperean eta digitalean, deskontuak izango dituzte Berbaizuren zerbitzuetan, errenta aitorpenean zerga-aringarriak izango dituzte eta hainbat zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

Gainera, aurten 20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari!

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!